



Esp.kodea: 2021JDIR0005

Gaia: GRABAZIO LAGUNTZAK HERRIKO
MUSIKA TALDEENTZAT.

Hasiera eguna: 2021/05/13

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko ekainaren 3an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Ekiñe bakarlarria: dirulaguntza eskatzea disko bat grabatu eta editatzeko (2021JDIR0005)


Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Garapen Komunitarioaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Ekiñe Arrasateko bakarlariak diru laguntza eskatu dio Udalari disko bat editatzeko. Musikariak betetzen du 2021ko dirulaguntza deialdiaren baldintzak eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu du, tartean diskoaren edizio gastuei dagokion faktura 726,00 € + 61,00 € = 1.337,00 € (BEZ barne) eta diskoaren zazpi kopia.

Hori dela eta, hauxe proposatzen dio Garapen Komunitarioko Batzordeburu honek Tokiko Gobernu Batzarrari:

- **LEHENENGO.** 2021ko diru laguntza deialdiak finkatzen duenari jarraiki, Ekiñe bakarlariari 668,50 €ko laguntza onartzea, 1-0410-480-337-20-01 maketak grabatzeko diru laguntzen kontu sailaren kontura.
- **BIGARREN.** Dirulaguntza onartzean, Ekiñe musikariak konpromisoa hartzen du gazte txokoetako baten kontzertu bat doan eskaintzeko.
- **HIRUGARREN.** Grabatutako diskoaren karatula editatuz gero, testua euskaraz azaldu beharko da bakarrik edo beste hizkuntza batzuekin batera, edonola ere, euskarazko testua bereziki nabarmendu beharko da.
- **LAUGARREN:** Ekiñeri gogora ekartzea Udalari aurkeztu behar diola edizio kostuen faktura.”

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Kodea	BB21/00658	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2021/eka./08	CUDO	000.0055.AAAALMFR.8.mNtb	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALMFR8.mNtb			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2021JDIR0005

Gaia: GRABAZIO LAGUNTZAK HERRIKO
MUSIKA TALDEENTZAT.

Hasiera eguna: 2021/05/13

Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurso aurkeztu dezakezu.

Idazkaria

EKIÑE CASADO URIARTE
PABLO URANGA KALEA, 6 - 6. C
20500 ARRASATE/MONDRAGON

Kodea	BB21/00658	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/eka./08	CUDO	000.0055.AAAALMFR.8.mNtb
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALMFR8.mNtb		

Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu

